

BERMEON KALE SALMENTA BAIMENAK ESLEITZEA
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2016eko irailaren 20an, goizeko 10:00 direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aingeru Astui Zarraga J^a, Zinegotzia
Xabier Ortuzar Butron J^a, Zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udaleko Idazkaria
Eduarne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeon kale salmenta baimenak esleitzea

Batzarrari hasiera ematen zaio eta, Bizkaiko saltzaile ibiltarien elkarteak (Asociación de vendedores ambulantes de Vizcaya) egindako eskaera aztertzen da (2016/11108 sarrera zenbakia, 2016ko irailaren 19koa). Eskatutakoa prozesuaren atal honetan eraginik ez duenez, prozesuarekin aurrera jarraitzen da.

2016ko irailaren 7an, esleipen prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, behin behineko onartuen eta kanporatuen zerrenda onartzen da, akats eta errekontzak zuzentzeko 10 eguneko epea emanaz.

Amaitzeko, datorren urriaren 4ean, Kultur etxeko Gazteleku lokalean, goizeko 10:00etan, behin betiko onartuen artean salmenta postuak zozkatuko dira.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

